

GENERO-IDENTITATEA EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAREN ERAIKUNTZAN

Tesiaren egilea: Oier Araolaza Arrieta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea

Tesi-zuzendaria: Nerea Aresti Esteban eta Leire Ituarte Pérez

Tesiaren laburpena:

Euskal dantzan genero-bereizketa auzitan jarri nahi du tesi honek, eta horretarako, euskal dantzaren jardunean indarrean diren genero-identitateen eraikuntza-prozesuaren aro bati begiratu dio. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen lehen herenean, euskal identitate nazionalaren eraikuntzarekin batera euskal dantzaren tradizio berria atondu zen. Ondorioz, ehun urtez euskal dantzak genero-ardatzaren arabera sailkatuta erakutsi dira: nesken dantzak batetik eta gizonen dantzak bestetik. Baina emakumeen eta gizonen dantzak, janzkerak eta dantzakerak bereizten dituen marra hori ez da dantzaren historiaren aro guztietan berdina izan.

Euskal komunitate nazionalaren espresio sinboliko eraginkorra izan da euskal dantza. Funtzio hori betetzeko helburuarekin eraldatu egin zen euskal dantza XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen lehen herenean. Genero-ikuspegiak eraldatzen ari ziren gizartean, eta, ondorioz, gizon eta emakumeen rol eta estereotipo berrien neurrira berregin ziren euskal dantzak. Dantza-tradizio berri hori genero-ikuspegi bitarrarekin eraiki zen, eta genero bakoitzari errepertorio, janzkera eta dantzakera bereiziz osatutako rol estereotipatuak egotzi zitzaizkion: maskulinitatea gorpuztu zuten ezpata-dantzariak eta feminitate-eredu berria poxpolinek. Dantzei genero-marka ezarri zitzaizkien eta ordura arte gizon eta emakumeek dantzatzen zituzten dantzak genero bakar bati lotuta birformulatu ziren. Gizon eta emakumeen arteko banaketa hori, neurri handi batean, orain 100 urte eraikia eta eraldatua izan zela frogatzeak egungo ikuspegiatar ekartzeko ardura transmititzen digu.

Emakumeek aurrekurik ez zutela dantzatzen esan da XX. mendean, baina ikerketa honek frogatu du gezurra dela hori, emakumeek aurrekuak dantzatzen zituztela, harik ukatu zitzaizkien arte. Horrela, aurrekuak, testuinguru ludiko zein erritualetan zabalduena zen dantza, ordura arte emakumeek ere dantzatu bazuten ere, eskusiboki gizonen dantza bihurtu zen, eta emakumeek inoiz dantzatu izana ere ukatu zuen narritiba sortu zen.

Emakumeek euskal dantzetan, eta bereziki aurrekuan, tradizioz ez direla dantzatu dioten sinesmen okerrak XXI. mendera arte iraun badu ere, azken urteotan

hainbat froga dokumentalek agerian jarri dute ukazio horren faltsutasuna. Aurrekariei eskainitako begiradan, euskal dantzaren historian emakumeek izan dituzten parte-hartzeen testigantzak biltzen ditu tesi honek. Ondoren 1874-1936 bitarteko aroan zentratuta, euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan genero-identitateak nola aldatu eta konfiguratu ziren aztertu da.

Euskal emakumeen dantzaren historia debekuek eta ukazioek, eta estereotipoak eta rolek markatutako historia da. Euskal dantza tradizionalaren eraikuntza horretan genero-identitateak nola aldatu eta konfiguratu ziren azalerratu nahi du lan honek. Debeku guztien gainetik eta ukazio guztien azpitik, dantzan egiteari inoiz utzi ez dioten emakumeen historia da honako hau.